

Bezero motaren arabera (langilea edo erabiltzailea), prezioa ezberdina izango da. Izan ere, hainbat deskontu gehituko ditugu, familia ugaria izateagatik, bertako langile izateagatik...

Ordainketa orduka, eguneka, asteka edo hileka izan daiteke. Kuotak moldagarriak izan daitezke, erabiltzaile bakoitzari egokituak. Azken finean, haurrak ez dira egutegi ezta ordutegi berdinekin egongo, hori gurasoekin zehaztuko da, baina egunero edo sarritan bertara joaten diren hurrei kuota finko bat egingo zaie.

Adibidez, onkologiako paziente batek astean behin 3 orduz bertan egon behar duenean haurra bertan utzi behar badu, prezioa ordutegi horretara moldatuko da. Denbora luzean haurra haurtzaindegian egon behar bada, tarifa finko bat egongo da.

Gure helburua haiengan probetxurik ez ateratzea da, baizik eta esukubide bat izan beharko litzatekeena eskeintzea, haiek eoroso sentitzea eta laguntza ematea une oro. Baina aipatzekoa da diru-sarrera maila desberdinetako erabiltzaileak kontuan hartuko ditugula, hala nola, soldata baxuagoak dituzten langileei ordaintzeko aukera malguak edo deskontuak eskaintzea kontuan hartuko dugu.

Kuotak: Beheko taula honetan prezioak argiago ikusi daitezke

EGUNAK (gela orduak: 08:00-16:00) - (zabalik: 00:00-24:00)	PREZIOA (€)
Egunean x ordu	Betiko ordutegian baino gehiago edo ordu ezberdinetan geratzen direnei : -30min: + 0,75€ -1 h: 1,50€ -4 h: 6,00€
1 egun (8h)	12€
1 aste	45€
1 hilabete	180€
3 hilabete	450€
6 hilabete	760€

Urte osoa	1000€
Jantoki zerbitzua hilero	70€

DESKONTUAK	Zenbatekoa
Familia ugaria	%15 eko deskontua urte osoko kuotan
Ospitalean langile	%.10 eko deskontua urte osoko kuotan
Hurtzaindegian 2 seme-alaba edo gehiago	%30 eko deskontua (bi haurretako batean) urte osoko kuotan
Jantoki zerbitzuan deskontua	<ul style="list-style-type: none"> - %5eko deskontua tailerretan parte hartzeagatik hile horretako kuotan - %15 eko deskontua janari zerbitzuan parte hartzen dutenei laguntza emanez hile horretan

Diru sarrerak dinamikoak izango lirateke, azken finean zerbitzua erabiltzen duten pertsona finko batzuk egongo dira beti, baina beste batzuk denboraldi edo egun baterako egongo dira soilik, orduan irabaziak ezberdinak izango dira. Beraz, gure zerbitzuaz urte osoan zehar gozaten dutenek gure irabazi finkoak zehaztuko dituzte, besteak, kasuaren arabera izango dira, hilabetearen arabera aldatu daitezkeenak.

Hau da, ratioak 18 haurretan daude 2-3 urte tartean. Demagun gure gelan eguneroko ordutegian 25-30 haur inguru ditugula, gutako 2 hezitzaileekin. Betiko ordutegiko haurrak izango dira hauek, urte osoan zehar gurekin egoten direnak. Hauek $25 \times 1000\text{€} = 25.000$

Bestalde, egun batzuetan edo ordutegi ezberdinetan beste hainbat haur izango ditugu, edo betiko ordutegiaz gain ordu gehiago geratzen diren haurrak. Horiek gure diru sarrera dinamikoak finkatuko dituzte, hilabetearen edo asteko egunaren arabera ezberdinak izan ahalko direnak.

Adibidez, haur bat astean bi egunez 18:00etatik 21:30 etara geratzen da. Haren kuota beti berdina izango litzateke, baina guztiz moldatua egokien datorkion moduan ordaintzeko. Beraz, 2h eta 30' minutuz $\rightarrow 1,50 + 1,50 + 0,75 = 3,75 \text{ €}$ egunean x 2 egun : $7.5\text{€} \times 4$ aste: 30€ hilean...